



IÑAXI eta MALEN MIKELAERRERO

Garai batian, orainddiok puntura arte, joskin asko egozen gure herrixan. Kale zaharreko Mikelaerrero be oso ezaguna izan zan horretan, eta gero bere alabiak, Iñaxi Madinazkoitiak, josten ez baiña joskin eta sastriendako

botoiak, harixak eta danetik eukan merzerixiarekin jarraitu eben etxe bertan. Malen Arrubarrena be dendan lan asko eginddakua dogu eta horretxegatik bixakin moldau dogu elkarritzeta hau.

—Nundik dator MIKELARRERO izena?

Iñaxi: Gure amari esaten otzain hola, bere aitta errementarixa zalako eta berak Mikela izena eukalako. Baiña, ahizpa danen artian berak bakarrik hartu eben izen hori eta gero guri eta nere semiari be hola esaten doskue.

—Etxe honetan egon zan jostetxia?

Iñaxi: Bai, aittajunak errementerixia Kale zaharrian beherago eukala uste dot, baiña gure amak hemen eukan josteko lekua eta bertara etorten ziran neskak, batzuk josten ikastera eta beste batzuk ofiziala moduan; honeiri jornal pagaitten otzan. Kanpora be askotan faten zan gure ama, aberatsen etxetara eta hola.

Malen: Ni etorri nintzanean, Unibersidadera ematen duen alde honetan zegoen tailerra, josteko makinekin eta plantxatzeko mahaiekin. Ikastera etortzen ziranak, barre-nak hartzen eta holakoekin hasten ziran.


—Iñaxi, zeu be ibiltten ziñan josten?

I: Ez, ni asko ez, etxaten gustaitten eta; nik dakitten danak beranduago ikasittakuak dira.

M: Baina, *nido de abeja* eta horrelako lan finak ederki asko egiten zituen Iñaxik gero amak soinekoak montatzeko.

—Malen, zeu be josten ikastera etorri ziñan?

M: Ez, ni *Loyola* txokolate fabrikara etorri nintzan lanera eta *Mikelarreronera* berriz, bizitzera. *Loyola* txokolate fabrika 1931an zabaldu zuten Ordizian Oñatiko *Santosenak* eta ni neskatila nintzala hasi



—Ignazia Plazaola, Karmen Inza Txaina, eta orduan ofiziala zan Margarita Guridi Urubil, Iñaxi Madinazkoitiari soiñekua probaitten, gerra aurreko Mikelarreronian.

M

Malen Oñatiko Loyola txokolate fabrikari hasi zanian 12 lagunek lane-gituen ebein, bera hamairugarrena izan zan eta 300 langille izatera be allegau ziran.

nintzan han txokolateak zilarrezko papelean batzen.

—Eta Oñatira noiz etorri ziñan ba?

M: Gerra denporan. Ondo gogoratzen naiz, nagusiak hemengo fabrikari neska batzuentzat lana bazegoela eta 1938ko urriaren 4ean probak egitera etorri nintzala; proba egin, *Fonda Onan* bazkaldu eta buelta Ordiziara; hurrengo egunean nere gauzak *Mikelarreronera* ekarri eta lanean hasi nintzan eta han ibili nintzan jubilatuta arte.

—Baiña dendan be egoten ziñan?

M: Bai, lanetik irten eta gero joaten nintzan.

BELAR Irrati-Telebista S.A.

**Elektrizitate instalakuntzak
Atezain automatikoak
Elektratresnen salmenta eta konponketa
TB-HIFI**

Olakua kalea, 1-C. Tfnoa: 78 06 57 OÑATI

LEIRE

**KIROLAK eta
HAUR MODA**

San Lorenzo, 120
Tfnoak: 78 34 55 / 78 17 35
OÑATI



-Iñaxi, etxeko balkoian.

— Iñaxi, zeñek zabaldu eben merzerixia, zuk ala zure amak?

I: Gerra aurretik nere amak be saltzen zittuan hariak eta holakuak etxian bertan, dendia daguen lekuan lehenago erlojerixia bat eguelako. Beranduago, orain dala 50 bat urte edo, neuk zabaldu neben dendia.

— Merzerixia bakarra zan Oñatin?

I: Ez, beste batzuk be baegozen, *Lasena*, hemen aldamenian, *Juanitosienian* be saltzen zittuain halako gauzak eta beranduago *Kirriñenak* be erei ebein dendia. Hareik be, bordadorak ziran eta ni txikittan askotan faten nintzan hara amaren enkar-guekin, orduan modan egozen eta bordautako txaketak eta nere amak lan asko emuten ostein.

—Gerra denporia zela bizi izan zebein?

M: Gerra hasi zanean, Ordizia beste herri asko bezela hustu egin zan, jendea ihesi joan zan eta gu ere, ama alarguna eta beste anai-arrebekin lehenengo Solaresera, Santanderrera, joan ginan eta gero Frantziara, baina han ere gerra-zaratak hasi ziranean berriz Ordiziara bueltatu ginan. Orduan oso gaizki pasatu genuen, lehenengo lekuan lanean jarraitzeko ere abalak eskatu behar izan nituen nik. Gauzak horrela ziran orduan...

Mikelarreronian Oñatiko neska askok ikasi eben josten.

I: Oñatititik be jende asko ihesi fan zan aldiari eukaiñakin. Ni be ixixan egon nintzan aldeteko nere tio eta primekin, baiña nora fan be ezkekixen eta ni bertan geratu nintzan amarekin.

— Orduan eskasia haundixa egon ei zan...

I: Bai, danetik falta zan, jatekua razionauta eguen eta beste gauza asko be gastau egin ziran. Telarik be ezeguen topaitterik eta jendiak azukar-sakuak eta mantak tinttau eta horrekin egitten zittuan soñekuak eta abriguak. Neri be, gerra denporan ezkondu nintzanez, asko kostau xaten abrigua egitteko telia topaittia; azkenian Bilboko sastre baten bittartez eskuratu neben tela zati bat eta amak egin nontan abrigua.

— Orduan debekau egin ebein euskeraz berba egittia, baiña entzunda dakot kanpotar batzuk etorri zirela *Mikelarrerona* euskeraz ikastera...

I: Bueno, gure etxian egon ziran baiña Felipe Jausorokin ikasten ebein. Gerra aurretik Felipe Uribarriko maixua zan eta euskeraz erakusten ei eben eta, abertzalia zalako, harek be alde egin bihar izan eben.

M: Hemen lehenego bilbaino bat egon zan eta gero haren bitartez, 1950. urtean txileno bat etorri zan, Alberto Risopatron. Hiru bat hilabete besterik ez zan egon eta oso ondo ikasi zuen, egun osoa Feliperen banastagin tailerrean egiten zuen eta. Iaz berriz etorri zan eta Lazkaoko euskaltegian hilabete osoa egin zuen hobeto ikasten. Guri betik euskeraz idazten digu.

— Zeueri be erakutsi otzuen Felipek?

I: Nik euskeraz eskribitten ezto sekula ikasi baiña irakurten bai, ondo moldaitten naiz.

M: Neri beti gustatu izan zait gramatika eta euskeraz idazten eta irakurtzen ere ondo ikasi nuen Feliperen laguntzaz. Kartak, Gabonetako felizitazioak eta horrelakoak idazten ditut. Baina oraingo euskera batua ez zait gustatzen; dena aldatu dute. Neri Txomin Garmendia eta Arantzazuko rebistan agertzen diranak gustatzen zaizkit, oso garbi idazten dutelako.

BATUAK, S.A.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa • Industrialdea • 18 Posta Kutxatila
• Tfnoa: 78 11 15 Telefaxa: 78 32 63 • OÑATI (Gipuzkoa)

Laket

**Lurrindegia eta
apaindegia**

Lazarraga, 3 OÑATI